# Denbora-

## 1 Harri-jasotzaileak

Martinek eta Pellok egin duten apustua bolo-bolo dabil herrian. Hona hemen bakoitzak egin duen altxaldi kopurua.

Nork jaso du kilo gehien?










## 2 Zer dago ezkutuan?

Gehien gustatzen zaizkion fruten itzalak bidali dizkigu Edurnek. Itzalak bakarrik ikusita, asmatuko al zenuke zein fruta diren?






Ezagutzen al dituzu hitz hauek? Nola idazten diren ba al dakizu? Ea hitz zuzena aukeratzen duzun, hiztegian begiratu gabe.

## 3 Hitz zuzenaren bila

# -pasak

## 4 Hitzekin jolasean

Hitzak atzekoz aurrera idaztea gustatzen zaio Naroari. Non daude ezkerreko hitzak?

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | mintzalari | A | iratakrem |
| 2 | merkatari | B | utrepsa |
| 3 | zimeldu | C | nepatzeiab |
| 4 | baieztapen | D | nusatodleg |
| 5 | aspertu | E | iralaztnim |
| 6 | geldotasun | F | udlemiz |

Erantzunak: **1.-** Martinek 2.350 kilo jaso ditu eta Pellok 3.100. Pello da, beraz, irabazlea. **2.-** Udarea, platanoa, gerezia eta mahatsa. **3.-** Estremista, dohakabe, inurritu, axolagabe eta hondatzaile. **4.-** 1-E, 2-A, 3-F, 4-C, 5-B eta 6-D. **5.-** a eta h.




## 5 Bikiak

Portuko itsasontziak ikustera joan da Ander aitonarekin. Itsasontzi pila bat zegoen, baina bi berdin-berdinak ziren. Zein?

## Jolasa



### Puxikak lehertu arte!

Kontuz, alboko laguna zure puxika lehertu nahian baitabil! Zure puxika osorik edukitzea lortzen baduzu eta beste lagun guztienak lehertzen badituzu, irabazle izango zara.



**1** Jokalari bakoitzak puxika bat puztuko du. Puxika guztiek, gutxi gorabehera, tamaina berekoak izan behar dute.

**2** Jarri soka bat puxikari. Ondoren, lotu puxika orkatilara. Lan hori egiteko helduren baten laguntza beharko duzue beharbada. Hala bada, eskatu lasai!

**3** Jokalari guztiek puxika orkatilara lotua dutenean, jolasean hasiko dira. Puxika guztiak lehertzea da helburua. Beste lagunen puxika lehertu beharko du jokalari bakoitzak; baina, noski, adi ibili beharko du bere puxikarekin ere, lagunek puska ez diezaioten. Norbanakakoaren puxika inork lehertu ez dezan, alde batetik bestera mugitzea da onena. Puxika oso-osorik daukan azken lagunak irabaziko du jolasa.